

INFORMAZIO OHARRA

Askoren artean Nafarroan konfiantzaren oinarriak finkatzen

Asteazken honetako jardunaldian, Eusko Ikaskuntzak antolatuta, Nafarroako bizikidetzari eragiten dioten distortsioak gainditzeko adibide eta proposamenak aurkeztu dira

Iruñea, 2021eko ekainak 16. Gaur, ekainak 16, Iruñeko Civicanen eta online, gizarte demokratiko batek arrazoi ideologiko, linguistiko edo identitarioengatik desadostasunak bideratzeko behar dituen tresnei buruz hausnartzeko jardunaldia egin da. "Gure desadostasunak: Nafarroan ezberdinen artean konfiantza sortuz" izenburuarekin, foro hau *Aniztasunaren Kudeaketa Demokratikoa Nafarroako: bizikidetz*a programan jasotzen da. 2019tik Eusko Ikaskuntzak bultzatzen du programa hori, Foru Gobernuaren laguntzarekin.

Irekiera ekitaldian Ana Ollo Foru Gobernuako Herritarrekiko Harremanetarako kontseilariak, Mikel Aranburu Zudaire Eusko Ikaskuntzako Nafarroako lehendakariordeak eta Javier Miranda Nafarroako Kutxa Fundazioko lehendakariak hartu dute parte. Jarraian, Amaia Nausiak eta Julen Zabalok, proiektuaren arduradun gisa, [Aniztasunaren kudeaketa demokratikoa Nafarroan: bizikidetz](#)a txostena aurkeztu dute. Txosten horretan, jarraitutako lanaren deskribapena eta ateratako ondorioak jasotzen dira. Txostena maiatzaren 19an eman zen ezagutzera, Foru Parlamentuko talde politikoen aurrean, Herritarrekiko Harremanetarako Batzordearen bilkuran.

Programa akademikoa Txoli Mateosek moderatutako bi mahai-ingurutan egituratu da. Lehena, "Konfiantza lantzen. Beste begiradak" lelopean, nazioarteko bi aditu bildu ditu: Jaume Lopez Pompeu Fabra Unibertsitateko kidea eta Gilen Garcia Ipar Irlandako auzian arreta jarri duena. Bi hitzaldiek elkarrizketa interesgarria eragin dute parte-hartze irekiaren txandan.

"Nafarroan konfiantza sortzen: Nola kudeatu gure desadostasunak?" izenburupean, bigarren mahai-inguruak Nafarroako Unibertsitate Publikoko hiru irakasle bildu ditu. Carmen Innerarityk bizikidetzaproiektu baterako premisetako batzuk jorratu ditu, Foru Komunitateko pluralismoaren hainbat adierazpen aztertuta eta gure inguruko herrialdeetan kultura-aniztasuna kudeatzeko esperientziak ikusita. Filosofia politikotik, Jorge Urdanozek zenbait terminotan jarri du arreta

– eskubideak, gehiengoa, eraketa, ituna, etab. –, eta horiek osatzen duten desadostasunak atzemateko eta kudeatzeko erabiltzen dugun kontzeptu-sarea. Lohitzune Zuloagak, aldiz, patriarkatuaren berezko ikuspegi dikotomikoak gainditzeko dituzten harreman-formetara zabaltzeko ikuspegi feminista tresna gisa proposatu du.

Jardunaldiaren amaieran, Nafarroan elkarbizitzari eragiten dioten zenbait distortsio gainditzeko benetako bideak daudela ondorioztatu da.

NOTA INFORMATIVA

Sentando bases para la confianza entre diferentes en Navarra

Durante la jornada de este miércoles, organizada por Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, se han presentado ejemplos y propuestas orientadas a la superación de las distorsiones que afectan a la convivencia en Navarra

Pamplona, 16 de junio de 2021. Hoy, 16 de junio, en Civican de Pamplona y mediante conexión *online*, se ha celebrado una jornada de reflexión sobre los instrumentos que una sociedad democrática necesita para encauzar las discrepancias por motivos ideológicos, lingüísticos o identitarios. Con el título “Nuestros desacuerdos: generando confianza entre diferentes en Navarra”, este foro se inscribe en el programa *Gestión democrática de la diversidad en Navarra: convivencia* que desde 2019 impulsa Eusko Ikaskuntza con el apoyo del Gobierno Foral.

La apertura ha estado a cargo de Ana Olló, Consejera de Relaciones Ciudadanas del Gobierno Foral, Mikel Aranburu Zudaire, Vicepresidente por Navarra de Eusko Ikaskuntza, y Javier Miranda, Presidente de la Fundación Caja Navarra. A continuación, Amaia Nausia y Julen Zabalo, como responsables del proyecto, han presentado el informe [Gestión democrática de la diversidad en Navarra: convivencia](#) en el que se recoge la descripción del trabajo seguido y las conclusiones obtenidas. Informe que fue dado a conocer el pasado 19 de mayo ante los grupos políticos del Parlamento Foral en sesión de la Comisión de Relaciones Ciudadanas.

El programa académico se ha estructurado en dos mesas redondas moderadas por Txoli Mateos. La primera, “Generando confianza. Otras miradas”, ha reunido a dos expertos internacionales: Jaume López, de la Universitat Pompeu Fabra, y Gilen García quien se ha detenido en el caso de Irlanda del Norte. Ambas intervenciones han suscitado un interesante diálogo en el turno de participación abierta.

Bajo el rótulo “Generando confianza en Navarra: ¿Cómo gestionar nuestros desacuerdos?”, la segunda mesa redonda ha reunido a tres docentes de la Universidad Pública de Navarra. Carmen Innerarity ha abordado algunos de los presupuestos para un proyecto de convivencia a partir del análisis de diferentes manifestaciones del pluralismo en la Comunidad Foral y a la luz de experiencias de gestión de la diversidad cultural en países de nuestro entorno. Desde la filosofía política, Jorge

Urdanoz se ha centrado en algunos términos –derechos, mayoría, constitución, pacto, etc.– que configuran la red conceptual mediante la que aprehendemos y gestionamos las desavenencias. Y Lohitzune Zuloaga ha propuesto la perspectiva feminista como herramienta para abrirse a formas de relación que superen las visiones dicotómicas propias del patriarcado.

La jornada ha concluido con la impresión general de que existen vías reales para superar algunas de las distorsiones que afectan a la convivencia en Navarra.